



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 17a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Lankidetz hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean “Ingeleseko hizkuntza murgilketa” lurralde-kooperazioko programa garatzeko. Osoko Bilkurak emandako baimena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepide mapa” egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikastetxeetan drogen kontsumoaren inguruko prebentziorako programak susta ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izenekoa, sor dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, NA-134 errepidean zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihesbideak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

- Galdera, Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren prestazioen barruan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, haurdunaldia nahita eteteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, hiru azeleragailu linealen erosketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Baluarteke plazako galtzadarria aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzat hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Larragako ikastetxe publiko handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Otsagabiko DBHia handitzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Patxi Larrainzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean "Ingelesezko hizkuntza murgilketa" lurralde-kooperazioko programa garatzeko.

OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren artekoa, 2005-2006 ikasturtean "Ingelesezko

hizkuntza murgilketa" lurralde-kooperazioko programa garatzeko". Haren testua 2006ko maiatzaren 11ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepede mapa” egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da «gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepede mapa» egin dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepede mapa” egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du “Nafarroako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepede mapa” egin dezan, ondokoak kontuan hartuta:

1. Mendekotasuna duten pertsonen laguntza emateko Nafarroako zerbitzu sarea zabaltzea eta hobetzea (zaharrentzako, lehen haurtzarorako, mendekotasuna duten pertsonentzako eta abarrentzako laguntza).

2. Orik 3 urtera bitarteko haurrentzako haur hezkuntzako ikastetxe publikoen eskaintza gizar-tean dagoen eskaerari egokitzea.

3. Lanaren antolamendua familia bizitza eta lana uztartzeak dakartzan beharrezkoetara egokitzea ahalbidetzen duten lan eta gizarte arloko politikak abian jartzea eta gizonen eta emakumeen uztartze horretan parte har dezaten sustatzea.

4. Administrazioak enpresetan berdintasunerako planak eta neurriak prestatzea eta bete ditzaten bultzatzea.

5. Genero indarkeriaren aurkako plan integral bat prestatzea, administrazio, erakunde eta botere publiko guztien parte hartze eta lankidetzarekin.

6. Nafarroako udal eta mankomunitateetan berdintasunerako teknikariak kontrata ditzaten sustatzea, berdintasunerako politikak toki administrazioaren bidez orokortze aldera.

7. Balioetan hezterari eta hezkidetzari buruzko programak garatzea derrigorrezko irakaskuntzako maila guztietan.

8. Beharrezkoa da aukera berdintasunerako foru planak lana, etxebizitza, familia, hezkuntza, aisialdia, parte-hartzea eta beste hainbat arlotan berdintasuna lortzeko neurri eraginkorrak jasotzea, baita beharrezkoak eta nahikoak diren baliabidea jartzea ere, neurri horien eraginkortasuna ziurtatzeko eta aitortzen diren eskubideak bermatzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hidrogenoa ordezeko energia iturria izateko ikerketa eta garapena bultzatzea eta iraunaraz ditzan, energia planaren barruan, muga 2010ean baitu. Bertan, gutxienez ere, I+G lerroak abian jarriko dira, enpresen ekimenak lagunduko dira eta horrekin loturiko proiektuak garatuko dira.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Espainiako Gobernua premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan behar den erregelamenduzko aldaketa susta dezan, Diputatuen Kongresuak 1995eko irailaren 19an onetsi zuen legez besteko proposamenean eta abenduaren 30eko 13/1996 Legeko hamargarren xedapen gehigarrian legegileek adierazi zuten borondatea guztiz bete dadin, hau da, konponbidea eman dakion Espainiako apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboak pairatzen duen gizarte babesgabetasunari.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan drogen kontsumoaren inguruko prebentziorako programak susta ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamenteuko Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan drogen kontsumoaren inguruko prebentziorako programak susta ditzan". Erabaki hau Aralar parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batean du sorburua. Mozio hori 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan drogen kontsumoaren inguruko prebentziorako programak susta ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du drogen kontsumoarekin eta bizitzarako prestakuntza aktiboarekin loturiko arazoaren prebentziorako programak susta ditzan, Nafarroako ikastetxeetan aplikatu daitezkeen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal den bezain laster Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izeneko, sor dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izeneko, sor dezan."

Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko maiatzaren 3ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan."

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2006ko maiatzaren 9an eginda-

ko bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

**Galdera, NA-134 errepedean zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihe-
bideak egiteari buruzkoa.**

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak NA-134 errepedean zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihebidetak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du NA-134 "Ebro ibaiaren ardatza" errepedeko Nafarroako zenbait herritan saihebidetak eraikitzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Behin baino gehiagotan, komunikabideetan Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren informazioak agertu dira, NA-134 "Ebro ibaiaren ardatza" errepedeko Nafarroako zenbait herritan saihebidetak eginen zirela iragartzen zutenak.

Horri dagokionez, honako galderak egin nahi ditugu:

1.- Zein herritan izan du eragina?

2.- Zenbatekoa da saihebidetako bakoitzaren kostua?

3.- Zein da kasuko espedientearen edo espedienteen egoera?

4.- Zein dira egungo aurrekontuan proiektu horiek ukituriko lerroak, eta zein zenbatekoa dute?

5.- Zein dira etorkizuneko aurreikuspenak, halakorik egotekotan?

6.- Zein dira saihebidetak eraikitze epeak eta data eta noiz hasiko dira zerbitzua ematen?

Erantzuna:

1.- Ukitutako udalak:

Jarduketa	Ukitutako udalerriak
Mendabiako saihebidetako	Mendabia
Lodosako saihebidetako	Lodosa eta Sartaguda
Andosillako saihebidetako	Andosilla, Cárcar eta San Adrián
Azagrako saihebidetako	Azagra eta San Adrián
Milagroko saihebidetako	Milagro eta Funes
Valtierra eta Arguedasko saihebidetako	Valtierra eta Arguedas

2006ko urtarrilaren 9ko Gobernuaren erabakiak aginduta, Jendaurrean jarritako azterlan informatiboan planteatutako alternatiba bakoitzeko ateratzen den lizitazio hasierako aurrekontua ondoko zerrendan agertzen da. Azterlana 2006ko urtarrilaren 27ko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

MENDABIAKO SAIHESBIDEA

• A1-A alternatiba:	8.907.675 €
• A1-B alternatiba:	6.836.664 €
• A2-A alternatiba:	8.497.586 €
• A2-B alternatiba:	6.320.096 €
• A3 alternatiba:	7.843.260 €

LODOSAKO SAIHESBIDEA

• A1 alternatiba:	11.126.776 €
• A2 alternatiba:	10.840.976 €
• A3 alternatiba:	11.054.215 €

ANDOSILLAKO SAIHESBIDEA

- A1 alternatiba: 5.967.718 €
- A2 alternatiba: 5.699.107 €

AZAGRAKO SAIHESBIDEAK

- A1 alternatiba: 5.772.310 €
- A2 alternatiba: 6.230.432 €

MILAGROKO SAIHESBIDEA

- A1 alternatiba: 8.136.959 €
- A2 alternatiba: 8.433.602 €
- A3 alternatiba: 9.002.742 €
- A4 alternatiba: 8.929.997 €

VALTIERRA ETA ARGUEDASKO SAIHESBIDEA

- A1 alternatiba: 6.818.597 €
- A2 alternatiba: 7.158.713 €

3.- Espedientearen gaur egungo egoera:

2006ko urtarrilaren 9an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatutako "Na-134 errepedeko, Ebro ibaiko ardatza, Mendabia, Lodosa, Andosilla, Azagra, Milagro, Valtierra eta Arguedasko saihebideteei buruzko informazio azterlana" udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko. Era berean, jendaurrean jarri zen eta ukitutako udalei entzunal-

dia eskaini zitzaien, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritako ondorioetarako eta baita Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozeduraren ondorioetarako (2006ko urtarrilaren 27ko 12. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Jendaurreko epea 2006ko martxoaren 3an amaituko da.

Jarduera horiek "foru komunitatearen intereseko sarea" izeneko kontusailaren kargura eginen dira.

Egiten ari den jendaurreko prozedura bukatuta, Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa formulatu eta udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu ondoren, Zenbatekoak zehaztuko dira hautatutako alternatiba bakoitzari dagozkion eraikitze-proiektuak idatzi eta gero.

Aurreikusita dago "2002-2009 aldirako errepedeei buruzko II. plan zuzendarian" programatutako jarduketak horiek 2007-2009 aldian egitea, betiere eskuragarri dagoen aurrekontua kontuan izanik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeke proposamenari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak Ablitasen tramitatu duen espediente bakarra da Urbancasa S.A. enpresak lurzoru urbanizaezinean 65 etxola eraikitzeke eskatu duen baimena. Hona hemen gehitu dugun espedientearen zehaztasun kronologikoak:

1- Espedientearen identifikazioa: X-783/04. Horren dokumentazioa Ablitas udal mugapean 65 etxola eraikitzeari dagokio (800 m²ko lurzatietan eta 8x7,5m²ko azalera ingurutzailakoak), Lor aintzirako parajea eta Urbancasa, S.A. enpresak sustatuta.

2.- Udal dokumentazioaren bidalketa-idazkia, 2004ko urriaren 19koa. Dokumentazio horretan honakoa jasotzen da:

2.1. Dokumentazio tekniko (txostena eta planoak), 2004ko abuztukoa, sustatzaileak udalari bidalita obren udal lizentzia eskatzeko.

2.2. Ablitasko Udaleko Hirigintza Batzordeak proposatutako aldeko txostena, 2004ko irailaren 30koa.

Txosten horretan azaldutakoaren arabera hauek dira eskatutako jardueraren ezaugarriak:

Hedadura guztira	84.679 m ²
Lurzati azalera	52.810 m ²
Berdegunak	14.901 m ²
Bideak	16.968 m ²
Dentsitatea	7,67 etxe/Ha.

3.- Udal dokumentazioa 2004ko urriaren 21ean sartu zen Nafarroako Gobernuaren erregistroan.

4.- Departamentu horretako Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza zerbitzuaren txostena, 2004ko abenduaren 15ekoa. Txosten hori ez da eskatutako jarduerak eta erabilerak baimentzearen aldekoa.

5.- Abenduaren 21eko 2271/2004 zenbakiko Ebazpena, zeinaren bidez Ablitasko 1. poligonoko 596, 597, 598, 599, 600 eta 601 lurzatietan Urbancasa, S.A. enpresak sustatutako 65 etxola eraikitzeari ezezkoa ematen zaion.

6.- Aurreko ebazpenaren edukia jakinaraztea, bai Ablitasko Udalari, bai Urbancasa S.A. sustatzaileari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du diabetesa duten per-

sonentzako podologia laguntza prebentiboa prestazioetan sartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 21. artikulua esaten du teknika, teknologia eta prozedura berri guztiak ebaluatuko dituela, Osasun eta Kontsumo Ministerioak, Carlos III.a Osasun Institutuko Teknologien Ebaluaziorako Agentziaren bidez, beste erakunde ebaluatzaile batzuekin elkarlanean eta autonomia erkidegoek hala proposatuta.

Egun, diabetesa duten pertsonentzako podologia laguntza prebentiboa ez dago Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak ematen dituen prestazioen artean, ezta Osasun eta Kontsumo Ministerioan eztabaidatzen ari den zerbitzuen zorroari buruzko errege dekretu proiektuan ere.

Aurrekoa dela eta, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez du aurreikusita diabetesa duten pertsonentzako podologia laguntza bere prestazioen barruan sartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 17an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Íñigo andreak “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Íñigo andreak galdera egin du “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zer oinarri izan ditu kanpaina horrek?

“En Navidad ¿quién?” izeneko kanpaina Nafarroako Emakumearen Institutuaren ekimena izan da, jendeak kontzientzia har dezan bizitzaren arlo guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren beharraz. Zentzu horretan, erabili den ikuspegiak antza du “Eta jaietan zer?” kanpainan erabili zen mezuarekin. Kanpainaren euskarria Orozen biñeta bat izan da, Eguberrietako berezko eginkizunak eta horiek nork egin ohi dituen gaitzat hartuz. Aipatu biñeta hori abenduaren 31an argitaratu zen Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan.

2. Bukatu al da?

Argi da kanpaina bukatu dela, helburua baitzen jendea sentsibilizatzea denbora epe jakin batean.

3. Zergatik izan du hain zabalpen eskasa?

Lehen esandako arrazoiengatik, ez dugu uste zabalpena eskasa izan denik; aitzitik, uste dugu

egoki izan dela, kontuan hartuta helarazi nahi zen mezua Eguberri-aroarekin lotuta zegoela

4. Zenbateko kostu ekonomikoa izan du? Kontzeptuen arabera azaldu nahi dugu.

Kanpainaren aurrekontua 4.593,85 eurokoa izan da. Horietatik, 3.433,85 euro bi iragarkiak ordaintzeko izan dira, eta 1.160 euro Orozen komikia egiteko. Gastu horiek “Berdintasunerako planaren garapena eta jarduketak” izeneko 930001 2269 232200 kontusailaren kargura egin dira.

5. Halaber, informazio bera behar dugu termino beretan eginiko udako kanpainari buruz, hain zuzen “Eta jaietan, zer?” kanpainari buruz; esan beharra dago, halere, azken kanpaina horren zabalak handia izan zela.

“Jaietan berdintasunaren aldeko udalak Eta jaietan zer?” izeneko kanpainari dagokionez, kanpaina hori ekainean hasi zen, Nafarroako herrietako jaien hastapenarekin batera.

Kanpaina hori dela eta egindako jarduerak honakoak izan dira:

1. Lehenik eta behin, komiki bat egin zen eta udaletara bidaltzeko kartel elebidunak eta CD euskarriak prestatu ziren.

2. Halaber, komikiaren plaka pertsonalizatuak egin ziren parte hartu behar zuten udalentzat.

3. Plotterra prestatu zen.

4. Komikia jaietako egitarauetan sartu zen.

5. Aintzatespen-ekitaldia udalbatzarekin.

6. Kanpainaren jarraipena egin zen komunikazio enpresa baten bidez, herrietan argazkiak egin eta iritziak bildu dituenak.

7. Uztailera bi egunetan, sanferminetan, kanpaina Nafarroako prentsan sartu zen.

8. Iruñean zehar kartelak banatu ziren.

9. Iruñeko zezen plazan banatzen diren triptiko-etan kanpaina agertu ziren.

10. Irailaren 29an amaiera eman zitzaion kanpainari Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan egin zen hitzaldi eta mahai-inguru baten bidez.

11. Jendearen iritziak eta hausnarketak biltzen dituen argitalpen bat prestatu zen.

Kanpaina hau bukatu da, eta arrazoiak Eguberriko kanpainaren inguruan esandako berberak dira, kasu honetan ere helburua baitzen jendea sensibilizatzea denbora epe jakin batean, herrieta-ko jai nagusietan, alegia. Hala ere, jaiak leku eta data ugaritan ospatzen direnez, kanpaina ez zen

prestatu modu globalean egiteko baizik eta tokiz toki; beraz, aipatu prentsako iragarkiez gain beste-lako ekitaldiak ere egin ziren.

Kanpainaren aurrekontua 27.423,00 eurokoa izan da eta "Berdintasunerako planaren garapena eta jarduketak" izeneko 930001 2269 232200 kontusailaren kargura ordaindu da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Donejakue bideko A-12 autobidea Errioxako

AP-68 "Vasco Aragonesa" autopistarekin eta A-68 autobidearekin lotzeko egin behar duten azterlan informatiboa idazteko sinatu duten lankidetzarako esparru-akordio bateko protokolo orokorraren hitzez hitzeko edukiari buruz. Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Nafarroako Gobernuak onetsitako protokolo orokorraren kopia bidaltzen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdetu egin du ea Nafarroako Gobernuaren eta Renferen artean egindako lankidetzak hitzarmenen bat indarrean dagoen. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Beste autonomia erkidego batzuetan, gobernuek trenbideen estatuko sarearekin batera lan egiten dute erregio mailako edo hurbileko bidaiarien zerbitzuak mantentzeko edo handitzeko. Ba al dago halako lankidetzak hitzarmenen bat indarrean Nafarroako Gobernuaren eta Renferen artean Iruña-Altsasu-Gasteiz, Iruña-Tutera, Iruña-Zaragoza, Tutera-Zaragoza eta Logroño-Tutera ibilbideetarako?

Erantzuna:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta RENFEk, 1997ko azaroaren 7an, Nafarroan erregio mailako tren zerbitzuak prestatzeko hitzarmen bat sinatu zuten.

Hitzarmen horren bidez, RENFEk erregio mailako honako zerbitzuak ezartzeko konpromisoa hartu zuen:

- Iruña-Zaragoza ibilbidean tren bat igandean.
- Zaragoza-Iruña ibilbidean tren bat ostiralean.
- Castejón-Iruña ibilbidean tren bat igandean.
- Iruña-Castejón ibilbidean tren bat astelehenetan.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Renferi agindu zion hitzartutako moduan izandako ustiapen-gastuen eta bidaiariak ekarritako dirusarreraren arteko diferentzia ordainduko ziola.

Zazpigarren klausulan ezarritakoari jarraikiz, hitzarmenak 1997ko urriaren batean hartu zuen indarra eta 1997ko abenduaren 31 arte irauten zuen; halaber, urtebeteko epeetan luza zitekeen.

Orain arte bi aldeek ez dute hitzarmena amaierazteko eskatu, eta seigarren klausulan aurreikusitako jarraipen-batzordea aldiari aldiari bildu da gastu eta dirusarrerari buruzko datuak ikusi ondoren behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, zerbitzuan egon daitezkeen aldaketak proposatzeko, eta urtebeteko ondoko luzapenak adosteko.

Jarraipen-batzordearen azken bilera 2005eko uztailaren 1ean egin zen Iruñean eta bertan hitzarmena 2006. urtera luzatzea erabaki zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eginiko 2005eko prestakuntza plana betetzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin zuen, 2005eko azaroaren 12an, 2005eko prestakuntza planari buruz. Horren inguruan honakoa informazioa eman behar da:

Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetatik zenbat eman diren egiazki, titulu desberdinen eta talde desberdinen kopuruak, eta horietara joan den ikasle kopurua.

A) Egiazki eman diren ikastaro eta prestakuntza jarduerak 669 izan dira guztira.

394 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak kudeatuak.

200 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak kudeatuak.

75 Segurtasun Eskolak kudeatuak.

B) 311 titulu desberdin eman ziren:

152 langile Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak emanak.

121 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak emanak.

38 Segurtasun Eskolak emanak.

C) Talde kopurua 669koa izan da guztira:

394 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak kudeatuak.

200 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak kudeatuak.

75 Segurtasun Eskolak kudeatuak.

D) Ikastaroetara joan diren ikasleen kopurua: 11.485 ikasle.

7.228 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan.

2.734 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan.

1.523 Segurtasun Eskolan.

Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetatik zenbat gelditu diren egin gabe. Haien zerrenda nahi dugu. Adierazi zer motatako ikastaro diren, zenbat plaza aurreikusten ziren eta zergatik ez diren egin.

A) Prestakuntza planean aurreikusita zeuden eta egin ez diren prestakuntza jarduera eta ikastaroak honakoak dira:

Guztira 50 prestakuntza jarduera eta ikastaro egin gabe gelditu dira.

7 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan.

12 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan.

31 Segurtasun Eskolan.

B) Egin gabe gelditu diren ikastaro motak zein diren, aurreikusitako plazak zenbat ziren eta zergatik ez diren egin ondoko taulan zehazturik agertzen da:

Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzua:

EGIN GABEKO IKASTAROAK	AURREIKUSITAKO PLAZAK	ESKARIAK
1. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOKO AURREKONTUEN ETA EKONOMIAREN KUDEAKETA	28	Eskatzaile bat
2. EUROPAKO KONSTITUZIOA	30	7 eskatzaile
3. LARRIALDIETARAKO PLANAK EGITEKO PROZEDURA	20	1 eskatzaile
4. LEGIONELOSIARI AURREA HARTU ETA KONTROLATZEARI BURUZKOA	25	10 eskatzaile
5. AUKERA-BERDINTASUNA AURKITZEN	30	15 eskatzaile
6. ARANZADIREN DATU-BASE JURIDIKOAK ERABILTZEA	12	14 eskatzaile
7. FAMILIA ETA LANA UZTARTZEARI BURUZKO LEGEA	35	17 eskatzaile

- Ez egiteko arrazoiak: "eskaera nahiko ez izatea" (1,2,3,4,5,7).
- NAPlik uste zuen ikastaroa eskatu zutenek Westlaw lizentziak zituztela; hala ere hori ez zen horrela izan eta 6. ikastaroa ezin izan zen eman.
- Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzua

Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzua

EGIN GABEKO IKASTAROAK	AURREIKUSITAKO PLAZAK	BAIMENA DUTEN ESKARIAK
EUSKARA		
Alfabetatze ikastaro trinkoa, I. maila	16	5
Alfabetatze ikastaro trinkoa, II. maila	16	6
Idazmena hobetzen	16	5
Euskara mintzatuaren ezaugarriak	16	4
Administrazio idazkiak	16	6
Trinkoa, 7. urratsa (maila)	16	5
Trinkoa, 8. urratsa (maila)	16	6
HIZKUNTZA KOMUNITARIOAK		
INGELESA		
Gutunak idazten	16	5
Telefono bidezko komunikazioak eta gizarte-harremanak	16	5
Mintzamena hobetzen II	16	6
FRANTSESA		
Idatzizko lan-komunikazioa	16	5
Europar Batasuneko lan-komunikazioa	16	4

Ikastaro horiek ez dira egin hierarkian gainean daudenen baimena izan zuten eskariak ez zirelako nahiko izan.

Nafarroako Segurtasun Eskola

	<i>Izena</i>	<i>Aurreikusitako plazak</i>	<i>Ez egiteko arrazoia</i>
FORUZAINGOA	Foruzainen oinarrizko ikastaroa	30	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
	Kabo izateko sustapena	51	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
	Sarjentu izateko sustapena	34	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
	Inspektoreorde izateko sustapena	23	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
	Polizia informazioa	(1)	Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak egindako kanpo-ikastaroa. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak ez zuen 2005ean egin; beraz, 2006. urtera arte atzeratu da.
UDAL TZAINGOA	Udaltzainen oinarrizko ikastaroa	30	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
	Kabo izateko sustapena	4	Izangaien kopuruari ez genion nahiko iritzi kontuan izanik prestakuntza ikastaroaren kostua. Hori dela eta, ikastaroa atzeratuko da izapidetzen ari den kabo izateko sustapen deialdietan izena emandako ikasleak batuz ikasle kopuru egokia lortu arte.
	Inspektoreorde izateko sustapena	8	Deialdiak errekurtsioa jarrita du. Aurreikusita dago 2006an egitea.
	Lehergaiak	35	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik
	Iheserako gidaritza	15	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik
	Administrazio-polizien arloan araudia eguneratzea	20	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik
	Helburuen araberako zuzendaritza	6	Ikasle kopuru ez-nahikoa. Aurreikusita dago 2006an egitea.
	Arazoen azterketa eta erabakiak hartzea	40	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik
	Bileren eta lan taldeen zuzendaritza	6	Ikasle kopuru ez-nahikoa. Aurreikusita dago 2006an egitea.
	Trafiko-istripuen atestatuak eta ikerketa: I. maila	20	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik.
	Trafiko-istripuen atestatuak eta ikerketa: II. maila	40	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik.
	Sonometriak	20	Ikasle kopuru ez-nahikoa. Aurreikusita dago 2006an egitea.
	Kudeaketa eta aginte teknikak	20	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik.
	Ibilgailuen inguruko delinkuentzia	20	Ikastaroa ez zen egin interesa zuten Segurtasun Publikoko erakundeen antolakuntza-arazoengatik.
	SUHIL TZAILEAK	Suhiltzaileen oinarrizko ikastaroa	24
Sustapen-ikastaroak		(1)	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
Kabo izateko sustapena		25	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
Sarjentu izateko sustapena		12	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.
Inspektoreorde izateko sustapena.		6	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita.

	Izena	Aurreikusitako plazak	Ez egiteko arrazoia
HERRITARREN BABESA	Koordinazioko operadore laguntzailea	13	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita
	Suhiltzaile boluntarioen oinarrizko ikastaroa	24	Nafarroako Babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea onartzeak, eta Nafarroako Larrialdietako Agentzia deituko den erakunde autonomoak proiektuari buruz egindako azterlanek aholkatu dute ikastaroa atzeratzea herritarren babeserako zerbitzuak berritzeari buruzko datu zehatzagoak izan arte.
	Aretoko burua	3	Ikastaroa hobeki antolatzeko. 2006an egitea aurreikusita edo dagoeneko hasita
	Aretoko buruen gaurkotzea	4	Nafarroako Babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea onartzeak, eta Nafarroako Larrialdietako Agentzia deituko den erakunde autonomoak proiektuari buruz egindako azterlanek aholkatu dute ikastaroa atzeratzea herritarren babeserako zerbitzuak berritzeari buruzko datu zehatzagoak izan arte.
	Operadoreen gaurkotzea	40	Idem
	Ekipo autonomoak. Suhiltzaile boluntarioak	21	Idem
	Suhiltzaile boluntarioentzako benetako sutea	21	Idem
	PLAZAK, GUZTIRA	615	

Ez da ezagutzen aurreikusitako plazen kopurua

– Zenbat langilek eskatu zuten ikastaroetan parte hartzea. Kasua bada, ikastaroak egitea eskatu baina erantzunik jaso ez zuten langileen kopurua. Ikastaroak beraiek eskatuta egin dituzten langileen kopurua eta ukitutako zerbitzuaren ekimenez edota sarrera eta igoera prozeduren barruan egin dituztenen kopurua.

A) Ikastaroetan parte hartzea eskatu zuten langileak: 10.089

7.293 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan.

2.796 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan.

0 Segurtasun Eskolan.

B) Eskaera egin arren ikastarorik gabe gelditu ziren langileak: 127

65 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan

62 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan

0 Segurtasun Eskolan

C) Ikastaroetara beraiek eskatuta joan ziren langileen kopurua hau da: 5.617

3.376 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan

2.241 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan

0 Segurtasun Eskolan

D) Ikastaroetara zerbitzuen ekimenez edo sartzeko edo igoera prozesuen baitan joan ziren langileen kopurua:

5.868 langile

3.852 Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuan

493 Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuan

1.523 Segurtasun Eskolan

2004ko prestakuntza planean hasiera batean aurreikusitako jardueren kostu osoa, eta egiazki egin direnen kostu osoa. Adierazi zein kontusailen kargura ordaindu diren.

2005eko prestakuntza planean hasiera batean aurreikusitako jardueren kostu osoa 1.501.192,22 eurokoa da.

2005eko prestakuntza planean egindako jardueren kostu osoa 1.503.054,98 eurokoa da. Ondoko tauletan zehazten da egindako kostu osoa zein kontusailen kargura ordaindu zen:

A) 2005eko prestakuntza planean aurreikusitako jarduerekin lotura zuzena duten gastuak.

2005eko aurrekontuko kontusaila	Aitortutako betebeharrak (eurotan)
040002 03100 2269 921300 Prestakuntza programetan batera parte-hartzea	3.000,00
040002 03100 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	403.382,29
040002 03100 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	157.029,32
040001 03200 2279 921300 Ikastaroak eta kongresuak antolatzea	24.232,48
040003 03300 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	138.734,26
040003 03300 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	213.022,85
040004 03400 2269 921300 Euskarazko prestakuntza plana	32.560,84
040004 03400 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	156.403,37
040004 03400 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	72.523,90
040000 03000 2400 921300 Liburuen eta argitalpenen edizio-gastuak (2005eko prestakuntza planaren argitalpena)	17.643,00
060001/06000/2266/112102 Prestakuntza	2.927,02
432000 43200 2269 334103 Espezializazio programetan parte hartzea	4.032,00

2005eko urrian, azaroan eta abenduan prestakuntza orduak eman dituzten funtzionarioei konpentsatzeko aitortutako betebeharrak. Horiek 2006ko gastu-aurrekontuari egotzi zaizkio.

2006ko aurrekontuko kontusaila	Aitortutako betebeharrak (eurotan)
040002 03100 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	3.836,09
040002 03100 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	10.443,28
040002 03100 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	5.154,13
040003 03300 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	16.800,18
A) GUZTIRA	1.261.725,01

B) 2005eko prestakuntza planean aurreikusitako jarduerekin lotura zuzena duten gastuak.

2005eko aurrekontuko kontusaila	Aitortutako betebeharrak (eurotan)
040000/03000/2200/921300 Inbentarioan sartzekoa ez den bulegoko materiala eta material informatikoa	26.216,64
040000 03000 2219 921300 Bestelako hornidura bereziak	7.781,98
040000 03000 2220 921300 Telefono eta posta komunikazioak	17.862,92
040000 03000 2230 921300 Garraioen eta pleiten gastuak	3.611,31
040000 03000 2271 921300 Garbiketa-zerbitzua	71.966,58
040000 03000 2280 921300 Energia elektrikoa, ura eta gasa	31.339,36
040000 03000 2284 921300 Garbiketarako materiala	2.117,39
040000 03000 2289 921300 Bestelako hornidura osagarriak	7.158,10
040000 03000 2200 921300 Inbentarioan sartzekoa ez den bulegoko materiala eta material informatikoa	4.000,00
040003 03300 2271 921300 Garbiketa-zerbitzua	38.091,30
040003 03300 2274 921300 Segurtasun zerbitzuak	1.323,58
040003 03300 2280 921300 Energia elektrikoa, ura eta gasa	17.131,33
040003 03300 2281 921300 Erregaiak, labaingarriak eta berokuntza	11.045,97
040003 03300 2284 921300 Garbiketarako materiala	1.683,51
B) GUZTIRA	241.329,97
EGIAZKI EGINDAKO KOSTU OSOA A) + B)	1.503.054,98

Hori guztia jakinarazten dizut hasieran egindako galderari dagokionez.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko
Zuzendari Kudeatzailea: Ignacio Bandrés Urriza

Galdera, haurdunaldia nahita eteteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak haurdunaldia nahita eteteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du haurdunaldia nahita eteteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak emakume nafarrek haurdunaldia nahita eteteko duten eskubidea bermatzen du, legeak ezarritako kasuetan.

Osasun Departamentuak haurdunaldia nahita eteteko beste erkideetara bidalitako emakumeen kopurua honakoa da:

ZENTROA	2003. urtean:	2004. urtean:	2005. urtean:
Isadora klinika	7	13	18
U. Aragonesa de Salud	47	49	49
Valle Hebrón	0	1	1
GUZTIRA	54	63	67

Zenbatekoa, guztira:

ZENTROA	2003. urtean:	2004. urtean:	2005. urtean:
Isadora klinika	10.277,28	14.325,64	20.964,84
U. Aragonesa de Salud	38.041,42	37.945,00	42.607,02
Valle Hebrón	0	0	0
GUZTIRA	48.318,70	52.270,64	63.571,86

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol-eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea ez betetzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Tabakismoaren kontrako osasun neurriak ezartzeko Legea 2005eko abenduan onartu zen. Erredakzioan aldaketa asko izan zituen, batzuk parlamentuko tramitearen bukaeran, eta horrek oztopatzen zuen aurreikustea nolakoa izan zitekeen bukaerako testua.

Frontoiak kirol-eremu itxiak dira; beraz, II. kapituluko 7. artikulua e) letran ezarrita dagoenez, debekatuta dago bertan erretzea.

Osasun Publikoaren Institutuak, arau-hauste horren berri prentsaren bidez izan zuenean, bilera bat antolatu zuen Uharteko alkatearen, idazkariaren eta Osasun Publikoaren zuzendariaren artean. Bilera Osasun Publikoaren Institutuan izan zen, urtarrilaren 12an. Bileran horretan legea betearazteko modurik egokiena zein izan zitekeen aztertu zen. Hona hemen hartu ziren neurriak:

– Frontoiko tabernan salgai zeuden tabako-produktu guztiak kentzea.

– Frontoiko esparru osoan debekuari buruzko seinaleak paratzea.

– Sartzean, bertan ezin dela erre ohartaraztea.

Bilera horretan, gai horren inguruan beti erakutsi duen laguntzeko asmoa agertu zuen Osasun Departamentuak; izan ere, erantzukizuna Uharteko Udalarena zen, bi arrazoi hauengatik:

– Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak ezarritakoaren arabera, osasun alorrean ikuskatze eta zehatze lanak udalek egin behar dituzte beren udal mugapean.

– 28/2005 Legeak ezarritakoaren arabera (19. artikulua) establezimenduko jabearen ardura da aipatu lege horrek ezarritakoa bere lokalean betearaztea. Kasu honetan, Euskal Jai Berri frontoian jabea Uharteko Udala da.

Guk, gure aldetik, hala nahi duten entitate guztiekin mantenduko dugu lankidetzua.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Tabakismoaren kontrako osasun neurriak ezartzeko abenduaren 26ko 28/1995 Legea abenduaren bukaeran onetsi zen, jatorrizko testuan aldaketa ugari egin ondoren. Horrenbestez, ezinezkoa izan zen hasieratik jakitea amaieran testuak zer esanzen zuen. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko testuak interpretazio zalantza ugari sortu zituen, bereziki II. kapituluko 7. eta 8. artikuluek; gaur egun ere interpretazio ezberdinak egiten dira hura aplikatzeko garaian.

Hori guztia dela eta, autonomia erkidegoek epe bat hartu dute (gure kasuan, urtarrila) irizpideak bateratzeko, zalantzak argitzeko eta, garrantzitsuagoa dena, ukituriko sektoreei eta herritar guztiei informazioa emateko:

– Iragarkiak jartzea erkidegoko prentsan, legearen xehetasun aipagarrienak azaltzeko.

– Seinale-kartelak egin eta banatzea.

– Ondoko erakunde eta elkarteetako ordezkariekin bilerak egitea: Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa, Iruñeko Udala, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza, Nafarroako Ostalaritza Elkarteak, Panasa, Gozotegien Elkarteak.

– Hitzaldi-solasaldiak egitea Merkataritza Ganberarekin, Nafarroako Mutuen Elkartearekin eta CENekin (Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa) batera.

– Parte-hartzeak komunikabideetan.

– Legearen interpretazioari buruzko telefono bidezko mila kontsulta baino gehiagori erantzutea.

Behin urtarrilean informazio eta aholku lan hori eginda, urtarrilaren bukaeran eta Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez, abenduaren 26ko 28/2005 Legea Nafarroan aplikatzeko jarraibideak onetsi ziren. Testuan gogoratzen da 10/1990 Legean eta 6/2003 Legean ezarritakoaren arabera, udalen eskumena dela arau-hauste arinetan ikuskapenak egitea eta zehapenak ezartzea. Eginkizun horretan, gainera, ondokoen laguntza izanen dute: osasun publikoko ikuskatzaileak, lan ikuskatzaileak, beren berariazko arauari jarraituz, eta Estatuko segurtasun gorpuzak eta indarrak –udaltzainak, foruzainak, polizia nazionala eta guardia zibila–.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala matxuratuta egoteagatik gaixoak Klinika Unibertsitariora bideratzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

2005ean 106 gaixo bideratu dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora erradioterapia tratamendua hartzera. Hona datuak:

– Erradioterapia	74 gaixo
– Erradioterapia + Brakiterapia	15 gaixo
– Erradioterapia + Kimioterapia	9 gaixo
– Brakiterapia	8 gaixo

Elektroien azeleragailu linealean gertaturiko geldialdi teknikoaren ondorioz 15 gaixo bideratu dira.

2005ean, gaixoei Nafarroako Klinika Unibertsitariora erradioterapia tratamendua hartzearen kostua 177.151 eurokoa izan da guztira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, hiru azeleragailu linealen erosketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak hiru azeleragailu linealen erosketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako Zentro Onkologikoa eraikitzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak abenduaren 21ean emandako 1796/2001 Ebazpenaren bidez adjudikatutako azeleragailu linealak eman gabe dira; izan ere, teknikoki ezin da holakorik egin horiek kokatuko diren erradioterapia zentroa eraiki arte.

Parlamentari horrek dakien bezala, plan onkologikoa hobetu dugu Nafarroako Ospitaleko C pabiloian eraiki behar den onkologia-arloko ospitalizatorako solairu berriari esker.

Egindako beste ekimen batzuk izan dira eguneko ospitale onkologikoa arratsaldez irekitzea eta minbizia garaiz antzemateko diagnostikoaren bigarren proiektzioa.

Halaber, aipatu behar da mojak eta sindikatuak lekuz aldatu behar izan direla, Nafarroako Ospitaleko M-6 eraikinera eta pabiloi urdinera, hurrenez hurren. Hori dela eta, leku horiek eraberritzeko eta

egokitzeko beharrezkoak izan diren proiektu arkitonikoak eta obrak egin dira.

2004an, plan onkologikoari dagozkion kontusailetatik 1.194.149 euro bete ziren. Gainerakoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dituen bestelako beharretara zuzendu zen.

2005ean, plan onkologikoari dagozkion kontusailetatik 1.741.183 euro bete ziren. Gainerakoa,

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dituen bestelako beharretara zuzendu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria María Kutz Peironcely

Galdera, Baluarteko plazako galtzadarria aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Baluarteko plazako galtzadarria aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindudut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Baluarteko plazarekin loturiko zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Baluarde sozietate publikoak eta Iruñeko Udalak ez dute inolako akordiorik sinatu Baluarteko plazako galtzadarria aldatzeko.

Baluarde sozietate publikoak, 2005eko abenduaren 15ean, eskabide formala bidali zion Iruñeko Udalarari inguruko barne erreformarako plan berezia aldatzeko, taberna-kafetegia baten zerbitzuak emanen dituen pabiloi bat eraikitzeke asmoz; pabiloi horrek honako neurriak izanen lituzke: luzera, 32 metro koadro; zabalera, 8 metro koadro; eta, garaiera, 5 metro koadro. Aipatu eraikina taki-

la dagoen eraikinarekin lerrokatuko litzateke eta, oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasun zuzena bermatzeko, Moret aita kalera jotzen duten eskaileretako mailen lehenengo lerrotik bi metrotara jarriko litzateke.

Bestalde, plaza eraiki zenetik dagoeneko bi urte eta erdi igaro dira eta ikusi da jendeak plaza uste baino gutxiago erabili duela. Hori dela eta, Iruñeko Udala, Baluarde Sozietatea eta Nafarroako Gobernua, herritarren eskariei men eginez eta teknikariei kontsultatu eta gero, plaza eta bere perimetroa 5000 bat metro koadrotan aldatzeko aukera aztertzen ari dira.

Bi jarduketa horien proiektua idazten ari da; halaber, proiektua Iruñeko Udalak barne berrikuntzarako plan berezia aldatzeko egin behar duen administrazio-espeditatearen zain dago.

Proiektua behin idatzita, jakinaraziko da egin beharreko jarduketak zein diren, zer aurrekontu duen eta zer iraupen izanen duen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Antzemate Goiztiarreko Ataleko lokaletan dagoen Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten plantillari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programan hamabi Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista ari dira lanean, eta Osasun Publikoaren Institutuko Antzemate Goiztiarrerako Atalaren barruan daude. Ondoko taulan azaltzen da horien lan-egoera:

	EGOERA	LANPOSTU MOTA
1	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
2	Funtzionarioa / Amatasun-eszedentzian	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Baja	
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
3	Funtzionarioa / Lan Osasunaren Institutuak birkokatuta	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
4	Funtzionarioa / Amatasun-bajan	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
5	Funtzionarioa / Zerbitzu eginkizunetan	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
6	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
7	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
8	Funtzionarioa / Amatasun-eszedentzian	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
9	Zerbitzu eginkizunetan	Egiturazkoa
10	Kontratua / Jardunean	Egiturazkoa
11	Kontratua / Bajan	Egiturazkoa
	Kontratua / Jardunean	
12	Kontratua / Jardunean	Egiturazkoa

Txanden banaketa, oro har, horrela egiten da:

Goizeko txanda: 6

- Hiru, Iruñeko unitatean
- Bi, unitate mugikorrean
- Bat, ustekabeetarako

Arratsaldeko txanda: 6

- Hiru, Iruñeko unitatean
- Bi, unitate mugikorrean
- Bat, ustekabeetarako

Txandak astero banatzen dira, 12 asteko hiru multzotan, eta 36 astetik behin errepikatzen dira; horrela, urte osoan langileei egokituko zaien aste kopurua antzekoa izanen da txanda guztietan, hau da, goizeko eta arratsaldeko txandetan eta Iruñeko eta unitate mugikorreko txandetan.

2.- Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programan hamaika administrari laguntzaile ari dira lanean, eta Osasun Publikoaren Institutuko Antzemate Goiztiarrerako Atalaren barruan daude. Ondoko taulan azaltzen da horien lan-egoera:

	EGOERA	LANPOSTU MOTA
1	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
2	Funtzionarioa / Zerbitzu bereziak	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
3	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
4	Funtzionarioa / Amatasun-eszedentzian	Plantillako lanpostua
	Ordezkatza-kontratua / Jardunean	
5	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
6	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
7	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
8	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
9	Funtzionarioa / Jardunean	Plantillako lanpostua
10	Kontratua / Jardunean	Lanpostu hutsa (Lekualdatze-lehiaketan)
11	Kontratua / Jardunean	Lanpostu hutsa (Lekualdatze-lehiaketan)

Txanden banaketa, oro har, horrela egiten da:

Goizeko txanda: 7

- Bat, Iruñeko unitateko harrera-lekuan
- Bat, unitate mugikorreko harrera-lekuan
- Bost, Iruñeko bulegoan

Arratsaldeko txanda: 4

- Bat, Iruñeko unitateko harrera-lekuan
- Bat, unitate mugikorreko harrera-lekuan
- Bi, Iruñeko bulegoan

Txandak astero banatzen dira, eta 11 astetik behin errepikatzen dira; horrela, urte osoan langileei egokituko zaien aste kopurua antzekoa izanen da txanda guztietan, hau da, goizeko eta arratsaldeko txandetan eta Iruñeko eta unitate mugikorreko txandetan.

3.- 1. eta 2. puntuetako taulak ikusi.

4.- Egun guztietan ez dago lan-bolumen bera; beraz, eguneko batez bestekoa ez da adierazgarria. Gutxi gorabeherako lan-bolumena zein den

ikusteko, orduko hitzorduen kopurua adierazten da, jarduera bakoitzean.

Screening eta tarteko azterketak:

– Iruñeko unitatea: Batez beste % 80ko parte hartzearekin, gehienez 15 azterketa egiten dira orduko; horrek esan nahi du 3,75 eta 5 emakume bitarte teknikari bakoitzeko, lanean 3 edo 4 teknikari ari direla kontuan izanik. Benetako ordutegia sei ordu eta berrogeita bost minutukoa da (atsedenerako 30 minutuak barne).

– Unitate mugikorra: Batez beste % 80tik gorako parte hartzearekin, gehienez ere 11 azterketa egiten lirateke orduko; horrek esan nahi du 5,5 emakume teknikari bakoitzeko. Benetako ordutegia aldakorra da, unitatetik Iruñera dagoen distantziaren arabera, eta hiru ordu eta berrogeita bost minututik bost ordu eta hamabost minutura bitartekoa da (atsedenerako 30 minutuak barne).

– Proba osagarriak: 10 minuturo hitzordu bat ematen da. Egon ohi den Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten kopurua bitik laura bitartekoa da.

5.- 2005ean txanda eta unitate bakoitzeko egindako azterketak honakoak izan dira:

	Iruña		Unitate mugikorra		Guztira
	Goizez	Arratsaldez	Goizez	Arratsaldez	
Screening	10.145	12.521	7.346	6.711	36.723
Tarteko azterketak	1.159	549	207	189	2.104
Proba osagarriak	2.254	–	191	–	2.445

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria María Kutz Peironcely

Galdera, osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak galdera egin du osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Eskutatuko informazioa ondorengo hau da:

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Osasun barrutia	Zk.	Eskualdea	Laguntza jarraituko guneak	Guardiako sendagileak/erizainak	Bertan egoteko guardiak	Guardia lokalizatuak	
1	01	Altsasu	Altsasu	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
	02	Etxarri-Aranatz	Etxarri-Aranatz	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
	03	Iruztzun	Arribe	Iruztzun	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara
					1/1		15:00etatik 8:00etara
					1/1		15:00etatik 8:00etara
	04	Leitza	Goizueta	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	05	Lesaka	Lesaka	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	06	Elizondo	Ipar Elizondo	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	07	Doneztebe	Doneztebe	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	08	Ultzama	Ultzama	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	09	Auritz	Luzaide	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	10	Agoitz	Agoitz	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
	11	Uhartea	Uhartea	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
1/1					15:00etatik 8:00etara		
27	Gares	Gares	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
28	Noain	Noain	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
29	Zangoza	Zangoza	2/2	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
30	Zaraitzu	Zaraitzu	1/1		15:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
31	Izaba	Izaba	1/1		15:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
41	Artaxoa	Artaxoa	1/1		15:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
42	Zarrakaztelu	Zarrakaztelu	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
43	Erriberri	Caparroso	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
44	Azkoien	Azkoien	2/2	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara		
			1/1		15:00etatik 8:00etara		
2	47	Valtierra	Valtierra	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
48	Corella	Corella	Corella	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
49	Cintruénigo	Cintruénigo	Cintruénigo	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
50	Cascante	Cascante	Cascante	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
51	Buñuel	Buñuel	Buñuel	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
3	33	Villatuerta	Villatuerta	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
34	Allo	Allo	Allo	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
35	Antzin-Ameskoa	Antzin	Antzin	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
36	Los Arcos	Los Arcos	Los Arcos	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
37	Viana	Viana	Viana	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
38	Lodosa	Lodosa	Lodosa	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
39	San Adrián	San Adrián	San Adrián	1/1	15:00etatik 22:00etara	22:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	
39	Andosilla	Andosilla	Andosilla	1/1		15:00etatik 8:00etara	
				1/1		15:00etatik 8:00etara	

** Zangozan eta Azkoien bi guardiako talde aritzen dira batera laguntza jarraituko gune bakar batean.

*** Valtierra eta Buñuelgo eskualdeetan, oinarriko eskualde bakoitzeko bi laguntza jarraituko guneetako guardiak banatzen dira.

Galdera, D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Iruñeko ikastetxe-etako D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Curriculum-aniztasunaren programak aniztasunari arreta emateko neurri bereziak dira. Ikastetxe-ek halako programak antola ditzakete derrigorrezko bigarren hezkuntzaren xedeak lortu ez dituzten baina programa horien aplikatuta lortzeko gai diren 16 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat. Taldeka antolatzen dira, betiere ikasle kopuruak ahalbidetzen badu.

Programa horien helburua da ikasleek Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzea.

Neurri horrek eragina du lanbide hastapenean eta heldutasunerako iragaitean. Programan curriculum hautatua, berariazkoa eta errealista lantzen da, aniztasun talde horietara joaten diren ikasleen interes eta motibazioei erantzuten saiatzen dena.

Ikastetxe batean –publikoa edo itundua– aniztasunari arreta emateko eskaintzen den neurrien multzoa, curriculum aniztasuna barne, ikastetxe bakoitzeko aniztasunari arreta emateko planean sartzen da.

Plan hori ikastetxe bakoitzak prestatzen du bere egoera, berariazko helburuak eta ikasleen profila kontuan hartuta.

Ikastetxe bakoitzeko aniztasunari arreta emateko planen ezaugarrietako bat malgutasuna da, bai denborari bai formulei dagokionez; horren ondorioz, beharrezkoa da plana urtero berrikustea. Hori dela eta, antolaketa egoera desberdinak daude ikastetxeetan, eta aldatu egiten dira urte batetik bestera, baita ikastetxe berean ere.

Ezaugarri horiek azaltzen dute zergatik dauden aniztasunari arreta emateko planak antolamendu mota hori hautatu ez duten Iruñeko D ereduko ikastetxe publikoetan; hala ere, horrek ez du esan nahi egoera hori alda ezin daitekeenik, sortzen diren beharizanen arabera eta, batez ere, halako arreta beharrezkoa duten ikasle kopuruaren arabera.

Edonola ere, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzean beharizanak batera aztertu, eta, beharrezkoa izanez gero, ikasleen aniztasunari arreta egokia ematea bermatzen duten antolamenduari buruzko neurriak hartzen ditu.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Arartekoaren Erakundeak eginiko gomendioari buruz, hain zuzen ere Daniel Diez Montosa ikaslearen familiari ordaintzekoa garraio eta jantokiko kontzeptuengatik eskatutako kopurua, ikasle hori San Fermin Ikastolara aldatu ondoren. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Arartekoak bere proposamenean gomendatzen zuen Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 24ko 166/2004 Foru Aginduaren 5. arauan ezarritakoa aplikatzea; agindu haren bidez, hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko 2004/2005 ikasurteko dirulaguntzen deialdia onetsi zen.

Gomendio hori ez zen onartu, zeren eta Daniel Díez Montosa ikaslearen kasu zehatzean ezin baita arau hori aplikatu.

Ezezkoa emateko arrazoiak honakoetan oinarritzen dira:

Gurasoek nahita hautatu zuten ikastetxe itundu hori.

Ikaslearentzako hezkuntza-neurria hautatzera koan, honako prozesua jarraitu da:

– Biurdana BHIak (euskarazko eredu) curriculum-dibertsifikazioa proposatu zuen ikasle honentzako beharrezko hezkuntza-neurri gisa.

– Biurdana BHIak proposamena Hezkuntza Departamentuari igorri zion ikastetxeak ez daukalako aniztasunari arreta emateko neurri hori, betiere familia ados dagoela.

– Hezkuntza Departamentuko Eskolatze Batzordeak Caro Baroja BHla (gaztelaniazko eredu) eskaini zion familiari, ikasleak bertan ikas lezakeelako proposaturiko curriculum-dibertsifikazioa.

– Gurasoek San Fermin ikastolan eskatu zuten curriculum-dibertsifikazioa, Caro Baroja BHIaren aukera alde batera utzita.

Ikastetxe itundua nahita hautatzeak berekin dakar foru dekretuan bildutako itunen moduluen ezaugarriak onartzea.

Kasuko finantzaketa moduluan, ez dira jasotzen garraio eta jantoki kontzeptupeko laguntza ekonomikorik.

Aurrerago, familiak Hezkuntza Departamentuari eskatu zionean garraio eta jantoki gastuak bere gain har zitzan, Hezkuntza Departamentuko Eskolatze Batzordeak hiru aukera eskaini zizkion familiari:

a) Ikaslea berriz eskolatzea Biurdana BHIan, DBHko 4. mailako bere taldean, curriculum egokitzeko pertsonalizatua jarrita.

b) Daniel semea Caro Baroja BHIko curriculum-dibertsifikazioko taldean eskolatzea, gaztelaniazko eredu.

c) Hirugarrena zen semeak jarraitzea San Fermin Ikastolako curriculum-dibertsifikazioarekin, garraio eta jantoki gastuak bere gain hartuta, ikastetxe itundu batean haurrak eskolatzen dituzten familia guztiek bezala.

Eskolatze Batzordearen baimena bete beharreko tramite administratibo bat da ikaslea San Fermin Ikastolan matrikulatzeko, behin familiak hura eskatu ondoren. Familiak egindako proposamenean artean hautatu ondoren, Eskolatze Batzordeak eskatutako eskolatzea baimendu zuen.

Ekainaren 24ko 166/2004 Foru Aginduko 5. araua ezin da aplikatu Daniel Diez Montosaren jasuan, zeren eta Biurdana BHItik San Fermin Ikastolara joateak ez baitu berekin ekartzen hizkuntza ereduaren ondoriozko leku-aldatzea, zeren eta Biurdana BHIan D ereduaren eskolatuta baitzegoen.

Horago azaldu bezala, familiak ez zuen onartu Biurdana BHIan curriculum-egokitzapen pertsona-

lizatua egitea, ez eta Caro Baroja BHIko curriculum-dibertsifikazioa ere.

Bi kasuetan garraioa doakoa zen, batetik ikastetxe publikoak direlako eta bestetik ikaslea derri-gorrezko hezkuntzan ari zelako.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzaren hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Caja Navarra fundazioarekin lankidetzaren hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, 2005-2006 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei etxeko eskola-laguntza emateko programa ezar dadin, Eskola eta Lanbide

Irakaskuntzaren zuzendari nagusiari emandako eskumena Hezkuntza kontseilariak beretzat hartzeari buruz. Lankidetzaren hitzarmen horren helburua da. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 38. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organoek noiznahi eskatu ahalko dute bere menpeko administrazio-organoren batek, berez edo eskuordetze bidez, ebatzi beharreko gaiez arduratzea".

Hezkuntza Departamentuak egokitzat jo zuen erakunde horretako ordezkari nagusiak hitzarmen hori sinatu eta aurkeztea; izan ere, ezarri beharreko programa berria eta interes handikoa zen gizar-tearentzat eta hezkuntzaren arloarentzat.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzekeari buruz, izen bereko Antsoingo urbanizazioan. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Aurreikusita dago Ezkaba/Iruña ikastetxe publiko berriak erantzuna ematea Antsoingo eta Iruñeko udaletako Ezkaba Planetik heldu diren esko-

latze beharrei, bai eta Ezkaba ikastetxe publikoaren egungo eskolatze beharrei ere.

Ikastetxe berria haur hezkuntzako 4 lerroekin eta lehen hezkuntzako 3 lerroekin hasiko da lanean. Hornidurak eta ekipamenduak planifikatuta daude 5 lerroa arteko hazkundera bideratzeko. Aurreikusita dago Ezkaba/Iruña ikastetxe publikoa 2007/2008 ikasturtean hastea lanean.

Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziak 2006ko otsailaren 7an helarazi zion Hezkuntza Departamentuari ikastetxe berria eraikitzeke eskatzen zituen lurzatiekin behin betiko lagapenaren erabakia.

Hemendik gutxira behar diren jasotze topografikoak eta zundaketak egiten hasiko dira, klausula eta baldintza administratibo eta teknikoen orrian sartzeko behar direnak; gero, gobernuak erabakia hartu ondoren, proiektua lehiaketara aterako da eta obrak adjudikatu eta hasiko dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeke obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzekeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Agoizko IP/DBHI handitzeko obrak 2005eko abenduaren 20an inauguratu ziren; horrela, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an egini-ko agerraldian iragarritako data bete ziren.

Obrak Agoizko Udalak eta Hezkuntza Departamentuak eginiko lankidetzak hitzarmenaren bidez

egin dira, ondoko ekonomia- eta kudeaketa-planari jarraituz:

Agoizko Udala arduratu zen proiektuaz, kontratua adjudikatzeaz, obren jarraipena egiteaz, ziurtagiriak ordaintzeaz eta eraikina jasotzeaz.

Hezkuntza Departamentuak obren garapena ikuskatu du, udaleko teknikariek elkarlanean, eta 268.767 euroekin finantzatu ditu. Hezkuntza

Departamentuak Agoizko Udalari 2006ko ekitaldi ekonomikoaren kargura ordainduko dio zenbateko hori.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Lizarran ikastetxe berria eraikitzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Eskola eta Lanbide irakaskuntzaren zuzendari nagusiak eta Lizarrako Alkateak bilera egin zuten

2005eko apirilaren 26an; bertan, Remontival izeneko tokian bigarren hezkuntzako instituturako eraikin berria egitea hitzartu zuten, betiere, haur eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako zentroen eskolatze beharrak kontuan izanik.

Eraikitze planak aurreikusten du ikastetxe berria 2008-09 ikasturterako abian jartzea; hona hemen finantzaketa eta lanak egiteko egutegia:

2006: 880.240 euro. Horietatik:

– 250.000 euro proiekturako

– 630.240 euro obrarako

2007: 1.100.000 euro obrarako

2008: 2.631.000 euro obrarako

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Larragako ikastetxe publikoa handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Larragako ikastetxe publikoa handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Larragako ikastetxe publikoa handitzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

2005eko azaroaren 24ean, Larragako Udaleko eta Hezkuntza Departamentuko kideek bilera egin zuten, eta bertan berrikusi zen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoa eraberritzeko eta zabaltzeko eta 0tik 3 urterako zikloa ikastetxean sartzeko proiektua.

Bilera hartan adostu zen 2007. urtean bi aldeek itun bat sinatuko zutela, ondoko baldintzen arabera:

1. Obren hasiera: 2007ko martxoan edo apirilean.

2. Obren iraupena: 15 hilabete.

3. Ordainketa: 2008. urtean, obra-bukaerako ziurtagiriak aurkeztutakoan.

Obrak hiru alditan egingen dira. Obren banaketa aldi bakoitzerako adosten diren diru zenbatekoen ehunekoaren arabera egingen da:

1. aldia: Egitura, ikasgelak eta estalkiak. Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko du kostu osoa.

2. aldia: Gaur egun beheko solairu dena eraberritzea, bertan 0tik 3 urtera bitarteko zikloa jartzeko. Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko du kostuaren % 65.

3. aldia: Gimnasioa, itxitura eta aldagelak. Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko du kostuaren % 50.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Otsagabiko DBHIIa handitzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Otsagabiko DBHIIa handitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Otsagabiako ikastetxe publikoa handitzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Otsagabiako IP/DBHIIa handitzeko lanek gutxi gorabehera 212.000 euroko kostua izanen dute.

Lanak egiteko egutegia aurreikusitako eskola-beharren arabera egokituko da.

Espedientearen gaur egungo egoera:

Proiektua: Martxoko lehen hamabostaldian proiektuaren erredakzioa adjudikatzeko lehiaketa-deialdia egingen da; adjudikazioa apirilaren amaieran eman beharko da.

Obrak: Obrak adjudikatzeko behar den lehiaketa egin ondoren, aurreikusita dago lanak ekai-

neko azken astean edo uztaileko lehen astean hastea.

Obren amaiera (gehienez) – 2006ko urriaren 31n.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Iruñeko Ave María/Patxi Larraintzar ikastetxe publikoak handitzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

2006ko urtarrilaren 13an, Ave María/Patxi Larraintzar ikastetxeetako eskola eremuan egin behar den haur eta lehen hezkuntzako eraikin berriaren lanak adjudikatzeko dokumentazio ekonomikoa ireki zen. Horren proiektua, aurrekontua

eta administrazio-baldintzen orria onetsi ziren Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 1216/2005 Ebazpenaren bidez.

Enpresa adjudikazio-hartzailea “Construcciones Valle Ulzama, S.L.” enpresa izan da, 3.227.329,00 euroko zenbatekoarekin, BEZA barne.

Kontratazio horren finantzaketa horrela egingen da:

– 1.791.218,89 euro 2006ko aurrekontuaren kargura.

– 1.436.110,11 euro 2007ko aurrekontuaren kargura.

Eraikitze epea 17 hilabetekoa da. Beraz, eraikin berria 2007ko irailerako erabat hornitua eta erabiltzeko prest egonen da; horrela, 2007/2008 ikasturterako abian jartzeko egin ziren aurreikuspenak beteko dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeke obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Iruñeko Donibane Bigarren Hezkuntzako Institutuan zurgintzarako nabe bat eraikitzeke buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Iruñeko Donibane Bigarren Hezkuntzako Institutuan, zurgintzako erdi mailako eta goi mailako zikloak alokatutako lokal batzuetan ematen dira, IWER zenarenak hain zuzen. Hezkuntza Departamentuak nabe bat eraiki nahi du, tailer horiek Donibane BHIaren ikastetxean bertan sartzeko.

Iruñeko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean ezartzen denez, orube horretan ezin da eraikitako eraikinak handitzeko jarduketarik egin. Horrenbestez, beharrezkoa izan da Iruñeko Udalean Trinitariosko plan orokorra hein batean aldatzeko proiektu bat bultzatzea.

Proiektu horren barruan, zabaldu nahi den eraikinaren inguruan Arga ibaiaren balizko uholdeei buruzko azterketa hidrologiko bat ere aurkeztu behar da.

Iruñeko Udaleko Hirigintza Kudeatzailtzak eskatzen du ingeniari batek eginiko azterketa hidrologiko bat aurkeztea, arkitekto batek egin duen nabea eraikitzeke proiektuaren osagarri.

Azterketa hidrologiko hori egin ondoren, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra hein batean aldatzeko eskaeraren osagarri gisa aurkeztuko da.

Iruñeko Udalak eskatutako aldaketa onetsiz gero, zurgintzako nabea eraikitzeke behin betiko proiektua aurkeztuko da eta beharrezkoa den obra lizentzia eskatuko zaio Iruñeko Udalari.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeke buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

2006ko urtarrilaren 10ean, Tuterako Valle del Ebro BHI ikastetxea handitzeko lehen faseko lanak adjudikatzeko dokumentazio ekonomikoa ireki zen. Obra horien proiektua, aurrekontua eta administrazio klausulen orria Eskola eta Lanbide

Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 21eko 1111/2005 Ebazpenaren bidez onetsi ziren.

Enpresa adjudikazio-hartzailea "Construcciones Valle Ulzama, S.L." enpresa izan da, 1.318.016,00 euroko zenbatekoarekin.

Obra horiek egiteko, 613.196 euro eta 704.820 euro gorde dira 2006ko eta 2007ko aurrekontuetan, hurrenez hurren.

Exekuzio epea hamabost hilabetekoa izanen da. Horrenbestez, eraikin berria horniturik eta fun-

tzionamenduan egonen da 2007ko irailean, Eskolako azpiegituren plan zuzendarian aurreikusitako epearen barruan alegia.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraikitzeke buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 363/2004 Ebazpenaren bidez onetsi zen Zizur Nagusiko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berriko obren proiektua eta lanen zuzendaritza kontratatzeke espedienteak.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren abuztuaren 17ko 604/2004 Ebazpenaren bidez, Javier Pérez Herreras arkitektoari eman zitzaion proiektuaren eta lanen zuzendaritzaren adjudikazioa.

2004ko azaroaren 19an, Hezkuntza Departamentuak Zizur Nagusiko Udalarari eskatu zion ikas-

tetxea eraikitzeke lizentzia, eta, horretarako, Javier Pérez Herreras arkitektoak idatzitako proiektuaren hiru kopia aurkeztu zituen.

Babes Zibilak eta Zizurko Udalak proiektuaren aldaketak proposatu ondoren, 2005eko apirilaren 27an jarduera sailkatuaren proiektuaren eranskin bat igorri zitzaion Zizurko Udalarari.

2005eko maiatzaren 17an, Zizurko Udalak obra eta jarduera sailkatuaren lizentziak eman zituzkion.

2005eko irailaren 26an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiari ahalmena ematea Zizur Nagusiko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe berriaren obrei buruzko kontratu izenpetzeke.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren urriaren 20ko 983/2005 Ebazpenaren bidez onetsi ziren Zizur Nagusiko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berria eraikitzeke obretarako proiektua, gastua eta klausula administratiboak orria.

2005eko azaroaren 4an argitaratu zen lehiaketaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Proposamenak aurkezteke epea azaroaren 30era artekoa zen.

Abenduaren 29ko 1356/2005 Ebazpenaren bidez obren kontratazioa Navasfalt-Harinsa Ambiental S.A. aldi baterako enpresa-elkarteari adjudikatu zitzaion 3.610.638,65 eurotan, BEZa barne.

Adjudikazioaren kontratua 2005eko urtarrilaren 25ean sinatu zen.

Kontuan hartuta kontratuaren arabera enpresak 15 hilabeteko epea duela obrak gauzatzeko, ikastetxea amaituta egonen da 2007ko maiatzera-ko. Halatan, ikastetxe berria funtzionamenduan jarriko da 2007/2008 ikasturtean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	